


Euskal AEn heriotzen kopurua % 0,1 igo da 2025eko bigarren hiruhilekoan

Hazkundera ekainean izan da, % 0,5 heriotza gehiagorekin; apirilean eta maiatzean, aldiz, % 0,1 eta % 0,2 jaitsi dira, hurrenez hurren.

2025eko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan 5.377 pertsona hil ziren, aurreko urteko aldi berean baino % 0,1 gehiago, Eustaten datuen arabera. Datuak aurreko urteekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu 2025eko bigarren hiruhileko honetako heriotzen kopurua txikiagoa izan dela 2022koa baino (5.787), 2021ekoa baino (5.418) eta 2020koa baino (6.073); aitzitik, 2019koa (5.067), 2023koa (5.266) eta 2010-2019 aldiko batez bestekoa (4.876) baino handiagoa izan da.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Bizkaian eta Gipuzkoan heriotzen kopurua handitu da: Bizkaian 2.884 heriotza izan ziren (+% 0,6), eta Gipuzkoan 1.741 (+% 0,5). Araban 752 pertsona hil ziren, % 2,7 gutxiago. Sexuen arabera, 2.706 emakume (–% 0,9) eta 2.671 gizon (+% 1,1) hil ziren.

Bigarren hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 11 hildako urtebetetik beherakoak izan dira (% 0,2) eta 122 hildako ehun urtetik gorakoak (% 2,3).

Tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira kausa nagusiak

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira, 1.513 eta 1.288 heriotza eragin baitzituzten, hurrenez hurren; beraz, bien artean aldi horretako heriotzen % 52,1 dira. Hirugarren heriotza-kausa arnas sistemako gaixotasunak izan dira, 455 heriotzarekin.

Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2025/II

	2025/II		2025/I		Gehikuntza (%)	2024/II		Gehikuntza (%)
	KOP	%	KOP	%		KOP	%	
HERIOTZAK	5.377	100,0	6.302	100,0	-14,7	5.373	100,0	0,1
Egoitza duen lurraldea								
Araba / Álava	752	14,0	854	13,6	-11,9	773	14,4	-2,7
Bizkaia	2.884	53,6	3.455	54,8	-16,5	2.867	53,4	0,6
Gipuzkoa	1.741	32,4	1.993	31,6	-12,6	1.733	32,3	0,5
Adina								
1 urtetik beherakoak	11	0,2	6	0,1	83,3	8	0,1	37,5
1-19 urte	8	0,1	10	0,2	-20,0	6	0,1	33,3
20-39 urte	35	0,7	35	0,6	0,0	35	0,7	0,0
40-59 urte	336	6,2	339	5,4	-0,9	307	5,7	9,4
60-79 urte	1.508	28,0	1.664	26,4	-9,4	1.512	28,1	-0,3
80-99 urte	3.357	62,4	4.120	65,4	-18,5	3.405	63,4	-1,4
100 urte edo gehiago	122	2,3	128	2,0	-4,7	100	1,9	22,0
Gizonak	2.671	100,0	2.996	100,0	-10,8	2.642	100,0	1,1
1 urtetik beherakoak	5	0,2	4	0,1	25,0	6	0,2	-16,7
1-19 urte	2	0,1	6	0,2	-66,7	4	0,2	-50,0
20-39 urte	28	1,0	25	0,8	12,0	26	1,0	7,7
40-59 urte	235	8,8	226	7,5	4,0	193	7,3	21,8
60-79 urte	938	35,1	1.007	33,6	-6,9	965	36,5	-2,8
80-99 urte	1.443	54,0	1.710	57,1	-15,6	1.431	54,2	0,8
100 urte edo gehiago	20	0,7	18	0,6	11,1	17	0,6	17,6
Emakumeak	2.706	100,0	3.306	100,0	-18,1	2.731	100,0	-0,9
1 urtetik beherakoak	6	0,2	2	0,1	200,0	2	0,1	200,0
1-19 urte	6	0,2	4	0,1	50,0	2	0,1	200,0
20-39 urte	7	0,3	10	0,3	-30,0	9	0,3	-22,2
40-59 urte	101	3,7	113	3,4	-10,6	114	4,2	-11,4
60-79 urte	570	21,1	657	19,9	-13,2	547	20,0	4,2
80-99 urte	1.914	70,7	2.410	72,9	-20,6	1.974	72,3	-3,0
100 urte edo gehiago	102	3,8	110	3,3	-7,3	83	3,0	22,9
HERIOTZA-HILABETEA								
Apirila	1.845	34,3				1.846	34,4	-0,1
Maiatza	1.783	33,2				1.786	33,2	-0,2
Ekaina	1.749	32,5				1.741	32,4	0,5

(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2025eko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Sexuen arabera heriotzen kausa desberdina izaten jarraitzen du; gizonen artean, tumoreek eragindako heriotzak (% 32,4) zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragindakoak (% 22,6) baino gehiago izan dira; emakumeen artean, kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira (% 25,3), eta bigarrena, berriz, tumoreak (% 23,9).

COVID-19ak 20 heriotza eragin ditu aldi horretan (guztiak baieztatutako COVID-19aren ondoriozkoak), hau da, heriotza guztien % 0,4 izan dira, % 68,8ko jaitsierarekin. Bizkaian kausa horren ondoriozko 10 heriotza izan dira, Gipuzkoan 8 eta Araban 2. Kausa horren ondorioz 10 emakume eta 10 gizon hil dira, eta, adin-tarteei erreparatuta, 80 urtetik gorakoak izan dira gehienak (16), eta ondoren 60-79 urtekoak (4).

Heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2025/II

	2025/II		2025/I			2024/II		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
HERIOTZAK	5.377	100,0	6.302	100,0	-14,7	5.373	100,0	0,1
Heriotza-kausak								
Guztira								
Neoplasiak	1.513	28,1	1.529	24,3	-1,0	1.622	30,2	-6,7
Zirkulazio sistema	1.288	24,0	1.561	24,8	-17,5	1.319	24,5	-2,4
Arnas sistema	455	8,5	847	13,4	-46,3	402	7,5	13,2
Nerbio sistema	332	6,2	374	5,9	-11,2	363	6,8	-8,5
Txegoste sistema	279	5,2	301	4,8	-7,3	250	4,7	11,6
Gainerako kausak	1.510	28,1	1.690	26,8	-10,7	1.417	26,4	6,6
COVID-19 baieztatuta	20	0,4	18	0,3	11,1	64	1,2	-68,8
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	1.490	27,7	1.672	26,5	-10,9	1.353	25,2	10,1
Gizonak								
Neoplasiak	865	32,4	868	29,0	-0,3	960	36,3	-9,9
Zirkulazio sistema	604	22,6	718	24,0	-15,9	626	23,7	-3,5
Arnas sistema	228	8,5	388	13,0	-41,2	212	8,0	7,5
Nerbio sistema	163	6,1	151	5,0	7,9	160	6,1	1,9
Txegoste sistema	137	5,1	156	5,2	-12,2	113	4,3	21,2
Gainerako kausak	674	25,2	715	23,9	-5,7	571	21,6	18,0
COVID-19 baieztatuta	10	0,4	6	0,2	66,7	31	1,2	-67,7
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	664	24,9	709	23,7	-6,3	540	20,4	23,0
Emakumeak								
Neoplasiak	648	23,9	661	20,0	-2,0	662	24,2	-2,1
Zirkulazio sistema	684	25,3	843	25,5	-18,9	693	25,4	-1,3
Arnas sistema	227	8,4	459	13,9	-50,5	190	7,0	19,5
Nerbio sistema	169	6,2	223	6,7	-24,2	203	7,4	-16,7
Txegoste sistema	142	5,2	145	4,4	-2,1	137	5,0	3,6
Gainerako kausak	836	30,9	975	29,5	-14,3	846	31,0	-1,2
COVID-19 baieztatuta	10	0,4	12	0,4	-16,7	33	1,2	-69,7
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	826	30,5	963	29,1	-14,2	813	29,8	1,6

(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira


Data 2023ko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan, heriotzak jaiotzak baino 2.091 gehiago izan baitziren. Hiru herrialdeetan izan ziren saldo negatiboak: Bizkaian 1.247 pertsona, Gipuzkoan 605 eta Araban 239.

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62